

**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2019/20

**Ikastegia** 151 - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GADEMP10 - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua

**Ikastaroa** 1. maila

**IRAKASGAIA**

25823 - Enpresa Ekonomiarako Sarrera

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

"Enpresaren Ekonomiarako Sarrera" irakasgaia Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (EAZ) Graduko, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza Graduko eta Ingeniaritza Mekanikoa eta EAZ Gradu bikoitzako 1. mailako oinarrizko irakasgaien moduluan kokatzen da. Irakasgai honek ikasleak enpresaren arlo funtzional nagusiei lotutako kontzeptuetara gerturatuko ditu. "Enpresaren Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza" irakasgaiarekin osatzen da, azken honek enpresako antolakuntzarekin zerikusia duten gaiak barneratzen dituelarik.

Irakasgai honetan enpresaren kudeaketa aztertuko da ikuspegi orokor batetik, ikasleak arlo desberdinetako ezagutzara gerturatuaz, beraien funtzionamendua eta guztien arteko harremanak ezagutzeko.

Irakasgaiaren izaera orokorra eta sarrerakoa denez, aurreragoko irakasgaiak jorratzeko oinarrizko ezagutza eta gaitasunak lantzen dira, hala nola merkatal zuzendaritza edo finantza zuzendaritzarekin lotura daukatenak, edota enpresaren antolakuntza eta zuzendaritzarekin zerikusia daukatenak ere.

"Enpresaren Ekonomiarako Sarrera" burutu ahal izateko ez da beharrezkoa enpresari buruzko aurretiko ezagutzak edukitzea, baina izanez gero errazagoa izango da irakas-gida honetan deskribatzen diren gaitasunak barneratzea.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**ESKUMENAK/ HELBURUAK**

Ikasgai honen helburu nagusia enpresaren kudeaketa ikuspegi orokor batetik aztertzea da. Horretarako azpigelburu batzuk planteatzen dira:

- Enpresa kontzeptua ulertzeko oinarrizko elementuak eta ingurunearekiko harremanak ezagutu.
- Enpresa kontzeptua azpisisitemen ikuspegitik aztertu eta berau osatzen duten azpisisistema ezberdinak bereizi eta banan-banan aztertu (zuzendaritza, giza baliabideak, komertzializazioa, finantzak eta produkzioa).
- Azpisisistema ezberdinen arteko harremanak ezarri.

**IKASGAIARI DAGOZKION GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

Enpresaren Ekonomiarako Sarrera irakasgaiak honako gaitasun espezifiko hauek garatu nahi ditu ikaslearengan:

- 1.- Enpresa sistema ireki bat bezala ulertu. Enpresa bateko azpisisistema guztiak euren artean loturik daude, baita enpresa haren inguruarekin ere. Enpresa batek aurrera eramandako edozein ekintza, enpresak dituen azpisisistema anitzetan eragina izan dezake. Halaber, ingurunean gertatzen dena, enpresaren jarduera eragin dezake.
- 2.- Enpresazko azpisisistema ezberdinen funtzioak eta ardurak identifikatu. Enpresa batek zer egiten duen, nola garatzen duen bere aktibitatea, nola betetzen dituen bere helburuak... Irakasgaiak enpresa kudeaketa eredu bat errazten du, eta ikasleek, berau erabilia, enpresa erreal baten egoera aztertu eta hura kudeatzeko gaitasuna garatu beharko dute.
- 3.- Enpresa baten barnean erabakiak hartzeko gaitasuna. Ikasleek, enpresaren funtzionamendua eta kudeaketa tresna batzuk ezagutu eta gero, erabaki aproposak hartzeko gaitasuna landuko dute. Irakasgaiaren helburu nagusia, enpresa ekonomiaren hastapenez lagunduta, enpresaren zuzendaritzari erabaki egokiak hartzen laguntzea da. Gaitasun hau enpresaren azpisisistema guztietan garatuko da: zuzendaritza, giza baliabideak, marketina edo azpisisistema komertziala, finantzak eta ekoizpena.

**TITULAZIOAREN ZEHARKAKO GAITASUNAK**

Irakasgain honetan "G7. - Analisia eta sintesirako gaitasuna" eta "G8. - Erabakiak hartu eta problemak ebaztea" landuko dira, ebaluazio jarraituan planteatuko diren jardueren bidez ebaluatuak izango direnak (ikus ezazu ebaluaketa sistema).

**IKASKUNTZA EMAITZAK**

- Enpresaren azpisisistema desberdinen funtzioak eta ardurak identifikatu..
- Erakundeko antolakuntza diseinuak eta euren ondorioak ulertu.
- Pertsonen kudeaketarekin harremana daukaten erabakien ikasketa teoriko eta praktikoa

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Ikasgaia: ENPRESA EKONOMIA HASTAPENAK
2. Ikasgaia: ENPRESAREN HELBURUAK
  - 2.1. Ikuspegi orokorra
  - 2.2. Xedea, helburuak eta azpihelburuak
  - 2.3. Helburu-sistema bat ezartzea eta helburuen sailkapena
3. Ikasgaia: ZUZENDARITZA-PROZESUA
  - 3.1. Zuzendaritza-azpisistema
  - 3.2. Plangintza eta kontrola
  - 3.3. Antolaketa
  - 3.4. Portaeraren zuzendaritza
  - 3.5. Informazioa
4. ikasgaia GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
  - 4.1. Giza baliabideak enpresan
  - 4.2. Giza baliabideen azpisistema
  - 4.3. Lan-harremanetarako saila eta haren jarduera enpresan
  - 4.4. Giza baliabideen zuzendaritzaren zeregin nagusiak
5. Ikasgaia: MERKATARITZA-AZPISISTEMA ENPRESAN
  - 5.1. Merkataritza-funtzioa eta haren joerak
  - 5.2. Marketinga: filosofia eta jarduera
  - 5.3. Merkataritza-informazioaren sistema eta merkataritza-ikerketa
  - 5.4. Produktua
  - 5.5. Prezioa
  - 5.6. Banaketa
  - 5.7. Komunikazioa
6. Ikasgaia: PRODUKZIOAREN KUDEAKETA
  - 6.1. Ekoizpen-funtzioa. Kontzeptua eta helburuak
  - 6.2. Ekoizpen-sistemaren erabaki estrategikoak.
  - 6.3. Ekoizpen-sistemaren erabaki taktikoak.
7. Ikasgaia: FINANTZA-ZUZENDARITZA
  - 7.1. Finantza-funtzioa
  - 7.2. Inbertsio erabakiak
  - 7.3. Finantzaketa erabakiak

## METODOLOGIA

Irakasgaien garatu beharreko metodologiak proposatutako helburuei eta gaitasunei lotuta egon behar du. Horretarako, honako irakaskuntza metodologia hau ezartzen da:

- Eskola magistrala: proposaturiko helburuak lor ditzan ikasleak ezagutu behar dituen oinarriko kontzeptuak eta teknikak eta tresnak aurkeztuko dira.
- Ariketen eta kasuen ebazpena. Ikasleak ariketa eta kasu batzuk izango ditu bere eskura: batzuk irakasleak klasean ebatziko ditu; beste batzuk garatu eta eztabaidatu egingo dituzte ikasleek taldeka klase orduetan, eta azkenean ikasleek eurek aurkeztuko dute ebazpena; azkenik, ariketa eta kasu zehatz batzuk ikasleek bakarka eskola orduetatik kanpo landuko dituzte.
- Egoera gatazkatsuen analisia eta eztabaida. Ikasturtean zehar hainbat enpresa-arazo eztabaidatuko eta landuko dira. Ikuspegia praktikoa izango da, horrela ikasturtean zehar garatutako kontzeptuak aplikatzeko gaitasuna erakutsiko da. Zeregin hori irakasleak tutorizatuko du eta enpresako simulatzaile baten erabilerarekin lagunduko da.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	51		7,5						1,5
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	76,5		11,25						2,25

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Test motatako proba % 40
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### A. EBALUAZIO JARRAIA (MISTOA)

#### IRIZPIDE NAGUSIAK

Azken froga (azterketa mistoa): 7 puntu

Gelako praktikak: 3 puntu

#### I. Azken froga edo azterketa (7 puntura arte)

Azken azterketaren bitartez ikasleek lortutako ezagutza teoriko zein praktikoak baloratuko dira. Azterketa mixtoa izango da, zati bat testa izango da, eta bestea garapeneko edo/eta ariketa praktikoa. Testa kanporatzailea izango da, eta irakasgaia gainditzeko ezinbestean beronen balioaren %45a lortzea eskatzen da (1,8 puntu 4tik).

#### II. Gelako praktikak (3 puntura arte)

Gelako praktiken bidez (gelako zein gelatik kanpoko lana), ikasleek, taldeka, eskola magistraletan landutako materialekin loturiko arazoak landuko ditu. Analisia eta sintesirako gaitasunak eta Erabakiak hartu eta problemak ebazteko zeharkako gaitasunak landuko dira. Ikasturtean zehar eGela plataformaren bitartez azalduko dira ebaluaketa jarraian burutu beharreko praktiken azalpena.

Argibideak eta baldintzak:

A1: Azken azterketa gainditu ahal izateko, test motako atalean gutxienez %45eko kalifikazioa lortu beharko da (1,8 puntu 4 puntutik) eta garatzeko atalean gutxienez %45eko kalifikazioa lortu beharko da (1,35 puntu 3 puntutik)

A2: Azken frogaren kalifikaziori II ataleko kalifikazioa gehitu ahal izateko, azken frogaren balioaren %45a lortu beharko da (3,15 puntu 7 puntutik).

Edozein kasutan, irakasgaia gainditzeko 5 puntuko gutxienerako kalifikazioa lortu beharko da. Azterketa ez egiteak, EZ AURKEZTU kalifikazioa edukitzea suposatuko du.

Burututako lan edo praktikaren batean zatiren bat edo osotasunean kopiatua izan dela ikusiz gero, automatikoki deialdi horretan EZ GAINDITU kalifikazioa suposatuko du.

### B. EBALUAZIO FINALA

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2016ko abenduaren 15ean onartu zuen Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren arabera (2017ko martxoaren 13ko EHAA, 50. zk), ikasleek uko egin ahal izango diote etengabeko ebaluazioari (edo mistoari) eta ebaluazio finala aukeratu, ebaluazio jarraian parte hartu zein ez hartu (8.3 artikulua).

Uko egite hau idatziz adierazi beharko zaio irakasleari eta horretarako lauhilekoaren lehenengo astetik bederatzigarren astera doan aldia baliatuko da, betiere zentruaren egutegia jarraituz.

## ERABILITAKO IRIZPIDE OROKORRAK

### I. Azken froga edo azterketa (7 punturartekoa)

Azken froga edo azterketaren bidez, ikasleak bereganatutako jakintza teoriko-praktikoak ebaluatu egingo dira. Azterketa mistoa izango da, test motako atala (4 puntutakoa), garatzeko beste atal bat edota ariketa praktikoa (3 puntutakoa). Test-a kanporatzailea izango da.

Argibideak eta baldintzak:

A1: Azken froga edo azterketa gainditu ahal izateko, test-an %45eko gutxieneko kalifikazioa exijituko da (4puntutik 1,8 puntu) eta garatzeko atalean %45eko gutxieneko puntuaketa, hau da, 3 puntutik 1,35 puntu.

A2: Azken frogan lortutako kalifikazioari kasu praktikoaren ebaluaketa (II atala) gehitu ahal izateko, %45eko puntuaketa lortu izana beharrezkoa izango da, hala nola, 7 puntutik 3,15 puntu.

### II. Kasu praktiko baten ebazpena (3 punturartekoa)

Ikasketa kasua irakasgaiaren irakasleak proposaturikoa izango da, beranduz jota azterketa egunean entregatu behar izango dena. Ikasleek, irakasleei ebatzi beharreko kasuaren inguruko xehetasunak eskatu beharko dizkiete.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### A. EBALUAZIO JARRAIA (MISTOA)

Ebaluazio sistema lehen deialdikoaren berdina izango da (7 puntu azken froga + 3 ebaluazio jarraia).

Praktiken bidez lorturiko puntuaketa ikasturte horretako bi deialdietarako baliagarria izango da, gutxienez azterketa data baino bi aste lehenago, ikasleak irakasleari idatzizko dokumentu baten bidez kontrakoa adierazi ezean.

Azterketara ez etortzea, EZ AURKEZTUA kalifikazioa lortzea inplikaturiko du.

Jarduera edo lanen bat partzialki edo erabat kopiatua izan dela antzematen baldin bada, deialdi horretako irakasgaiko kalifikazioa EZ GAINDITUA izango da.

Ezohiko azterketaren data ofizialean UPV/EHUn aurrez aurreko jarduera akademikoa etenda badago, aurrez aipatutako proba modu birtualean egingo da. Kasu horretan, azterketaren data ofiziala baino hamabost egun lehenago, eGela plataformaren bidez, proba horren xehetasunak jakinaraziko dira.

### B. EBALUAZIO FINALA

Ohiko deialdian ezarritako irizpide eta baldintzak aplikatuko dira.

Ezohiko azterketaren data ofizialean UPV/EHUn aurrez aurreko jarduera akademikoa etenda badago, aurrez aipatutako proba modu birtualean egingo da. Kasu horretan, azterketaren data ofiziala baino hamabost egun lehenago, eGela plataformaren bidez, proba horren xehetasunak jakinaraziko dira.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Irakasgaiko apuntuak
- eGela plataformako material gehigarria.
- Enpresako simulatzailearen materiala

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

SÁNCHEZ, R. eta GONZÁLEZ, J. (2012): Administración de empresas: Objetivos y decisiones. McGraw Hill, Madrid.  
MARTÍN DE CASTRO, G.; MONTORO SÁNCHEZ, M.A. y DÍEZ VIAL, I. (2016): Fundamentos de Administración de Empresas. Thomson Reuters-Civitas.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

AGUIRRE SADABA, A.; D. TOUS ZAMORA eta A.M. CASTILLO CLAVERO (2003): Administración de organizaciones en el entorno actual. Pirámide, Madrid.  
CUERVO, A. (Coord.) (2005): Introducción a la Administración de empresas. Thomson-Civitas.  
DÍEZ DE CASTRO, E.; GALÁN, J.L. eta MARTÍN, E. (1996): Introducción a la Economía de la Empresa. Pirámide, Madrid.  
FERNÁNDEZ GAGO, R. (2005): Administración de la responsabilidad social corporativa. Paraninfo-Thomson Learning, Madrid.  
GONZÁLEZ, F.J. eta J.D. GANAZA (2007): Principios y fundamentos de gestión de empresas. Pirámide, Madrid.  
IBORRA, M.; A. DASÍ, C. DOLZ eta C. FERRER (2007): Fundamentos de dirección de empresas. Thomson, Madrid.  
JOHNSON, G.S. eta R. WHITTINGTON (2006): Dirección estratégica. Prentice-Hall.

PÉREZ GOROSTEGUI, E. (2002): Introducción a la Economía de la empresa. Centro de Estudios Ramón Areces, Madrid.  
RODRÍGUEZ, J.M. eta V. SALAS (2006): Responsabilidad social corporativa. FUNCAS, Madrid.  
ROJÍ FERRARI, S. (2000): Introducción a la economía de la empresa. Mileto, Madrid.  
SUÁREZ SUÁREZ, A. (1991): Curso de introducción a la Economía de la Empresa. Pirámide, Madrid.